

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

Oinarrizko dimentsioa: Ingurura egokitzea

Ikasketa Planean adierazitakoa: Prestakuntza humanista eta profesionala txertatzea, gizarte, lan eta kultura aldaketei nahiz aldaketa teknikoari aurre egiteko, etengabeko prestakuntza prozesu baten bidez.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. maila: Gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Lan, gizarte eta ekonomia testuinguru eta egoera berriak modu positiboan lantzea, eta denbora mugatuan, kontrako egoeratan eta zailtasunetan egungo egoerara egokitzeko hainbat jardunbide planteatzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Egoera berriaren aurrean, modu proaktiboan erantzuten du, etorkizuneko gizarte, ekonomia eta lan egoerara egokitzeko.	Modu positiboan erantzuten du, inguruaren aldaketaren aurrean. Aldaketara egokitzeko jarrera proaktiboa du.
Informazioa bilatzen du zailtasunak eta aurkako egoerak errazago gainditzeko eta egoera berrietara egokitzeko hainbat bide eratzeko.	Berehala hasten da testuinguru berrira egokitzeko informazioa, soluzioak eta baliabideak bilatzen, aldaketa posiblea eta komenigarria dela sinetsita.
Erronka berriei aurre egiteko baliabide originalak egokitzeko gaitasuna erakusten du, adostasuna bultzatuz eta planteatutako zailtasunak gainditzeko erraztasunak emanez.	Egokitze proiektu berriak erabakimenez eta ilusioz azaltzen ditu, besteen jakin-mina piztuz eta lankidetzat bultzatuz.
Testuingurura egokitzeko proiektuak eta planak dagozkion epean eta eran entregatzen ditu, eta maiz laguntzen du proposatutako zereginetan, baita horien ebaluazioan ere.	Proiektuak eta planak dagozkion epean eta eran aurkezten ditu, eta maiz ebaluatzen du haiek egiteko aukerak edo berriro adierazteko beharra.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Sozietateen Zuzenbidea.

4. ZEREGINAK

- Eztataidatzea, gogoeta egitea eta gai akademikoari loturiko artikuluei eta/edo bideoei buruzko lan praktikoak egitea (bakarka edo taldeka); eta eginiko lanak ikastalde osoaren aurrean ahoz azaltzea.


5. EBALUAZIO SISTEMA

Sozietateen Zuzenbidea irakasgaiak gaitasuna garatzen eta ebaluatzen du; bere ebaluazio protokoloan jasotzen du; eta, ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen du.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez. Lehen adierazleak % 10 balio du, eta bigarren, hirugarren eta laugarren adierazleak % 30 balio dute.

Gaitasuna ebaluatzeko, testuinguru sozioekonomiko berri bat aurkeztu behar da kazetaritzako albiste baten bidez, bideo batez edo sarearen bidez. Gero, problema bateratu behar da, eta alderdi nagusiak jasoko dituen jardun gida (banakakoa edo kolektiboa) bat egin; gida horren arabera, ikasleak edo lan taldeak informazio juridikoa, ekonomikoa eta soziala bilatuko du, hainbat iturritan; eta egoera berrietara egokitzeko bideak diseinatuko ditu, beste dokumentu batean. Erronka berriei aurre egiteko diseinatutako proposamenak eta bideak lan taldeetan eztabaidatu eta adostuko dira, eta aukera



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea guztiak jasoko dituen dokumentu bat prestatuko da. Amaitzeko, ikasleak lanaren memoria aurkeztu eta azalduko du, horren barruan alderdi hauek sartuta: jarraitutako prozedura, testuingurura egokitzeko proiektua eta plana, epeak eta moduak zehaztuta, eta lan taldeak jarraitutako prozeduraren autoebaluazio bat, bai banakakoa bai taldekoa.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren nota osoaren % 2 da.


Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. maila: Gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA


Eraginkortasunez jardutea, eta finkatutako helburuak lortzea denboraren presiopean, desadostasun eta zailtasun egoeretan.

IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
1. Helburuak eta epeak finkatzen ditu lanak egiteko, eta lehentasunak zehazten ditu.	1. Proiektuetan berez ateratzen zaio lanen plangintza eta exekuzio prozesua egitea.
2. Denbora egoki banatzen du, eta bere agenda ongi antolatzen du. Pertsonak edo egoerak ez dira eragozpen bat bere lehentasunei jarrai diezaien.	2. Ezustekoen kudeaketa aurreikusten du, eta lanak edo zereginak entregatzeko epeak hobetzen dituzten planteamendu globalak egiten ditu.
3. Irakasleak edo taldeak ezarritako estandarrak gainditzeko jarduerak egiten ditu.	3. Lanak edo zereginak entregatzeko eskakizun formalak hobetzen dituzten planteamendu globalak egiten ditu.
4. Bere lanaren kalitatea kontrolatzen du. Bere akatsetatik ikasten du. Kritikak aztertzen ditu, etorkizunean bere jarduera hobetzeko.	4. Kritikoa da bere buruarekiko, eta berak edo beste batzuek hautemandako akatsak konpontzeko aukerak ematen ditu.
5. Ez du amore ematen etsipenaren aurrean, eta helburuak lortzeko bide alternatiboak identifikatzen eta sortzen ditu.	5. Hazi egiten da zailtasunen aurrean, eta etsipenei erronka berri modura egiten die aurre.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Kontabilitaterako Sarrera irakasgaiak koordinatzen du gaitasuna.

Gaitasuna kalifikatzen duten beste irakasgai batzuk: Finantza Kontabilitatea.

Ebaluazio sisteman kalifikatu ez arren, gaitasuna garatzeko lagungarriak diren beste irakasgai batzuk: Enpresen Kudeaketa I.


3. ZEREGINAK

Gaitasuna garatzen eta ebaluatzen duten bi irakasgaien zereginak berberak dira:

- Talde lanaren disfuntzionaltasunei eta horien konponbideei buruzko txosten bat egitea, eta taldeko kideek bete beharreko funtzionamendu arauen kontratu bat adostea.
- Proiektuaren agertokia aurkeztea: gidatzeko galderak eta plangintzarako urratsak.
- Talde lanaren garapenari buruzko banakako inkesta bat, eta taldearen gainerako kideen ekarpenen baterako ebaluazioa egitea.
- Eskolaz kanpoko lanak garaiz entregatzea.
- Ebaluatzen diren jarduera guztietan eskakizun formalak betetzea.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

5. EBALUAZIO SISTEMA

Kontabilitaterako Sarrera (gaitasuna koordinatzen duena) eta Finantza Kontabilitatea irakasgaiak gaitasuna jasota dute beren ebaluazio protokoloetan, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen dute.

Gaitasuna koordinatzen duen **Kontabilitaterako Sarrera irakasgaiak eta Finantza Kontabilitatea irakasgaiak** antzeko zereginak dituzte, eta modu berean ebaluatzen dute gaitasuna.

1. Adierazle guztiak ebaluatzen dituzte: lehenengo lauei notaren portzentaje bat ematen zaie, eta, azkenekoa, hots, ikasgelan jarrera positiboa izatea, ezinbesteko baldintza bat da irakasgaiaren etengabeko ebaluazioan sartzeko.

2. Gaitasunaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da.

3. Bi irakasgaietan gaitasuna ebaluatzen duten zereginak honako hauek dira:

- Talde lanaren disfuntzionaltasunei eta horien konponbideei buruzko txosten bat egitea, eta taldeko kideek bete beharreko funtzionamendu arauen kontratu bat adostea.
- Proiektuaren agertokia aurkeztea: gidatzeko galderak eta plangintzarako urratsak.
- Talde lanaren garapenari buruzko banakako inkesta bat, eta taldearen gainerako kideen ekarpenen baterako ebaluazioa egitea.
- Eskolaz kanpoko lanak garaiz entregatzea.
- Ebaluatzen diren jarduera guztietan eskakizun formalak betetzea.
- Gaitasunaren ebaluazioan, adierazle bakoitzaren pisua honako hau da:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Adierazlea	Zeregina	Adierazle bakoitzaren ehunekoa, gaitasunaren pisuan
1	<ul style="list-style-type: none"> Talde lanaren disfuntzionaltasunei eta horien konponbideei buruzko txosten bat egitea, eta taldeko kideek bete beharreko funtzionamendu arauen kontratu bat adostea. Proiektuaren agertokia aurkeztea: gidatzeko galderak eta plangintzarako urratsak. 	% 36
2	<ul style="list-style-type: none"> Eskolaz kanpoko lanak garaiz entregatzea. 	% 23
3	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluatzen diren jarduera guztietan eskakizun formalak betetzea. 	% 23
4	<ul style="list-style-type: none"> Talde lanaren garapenari buruzko banakako inkesta bat, eta taldearen gainerako kideen ekarpenen baterako ebaluazioa egitea 	% 18
5	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgelan portaera eta jarrera aktiboa edukitzea. 	Etengabeko ebaluazioan sartzeko ezinbesteko baldintza

- Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala % 11 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Kontabilitaterako Sarrera eta Finantza Kontabilitatea irakasgaien diseinua nahita egin dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Kontabilitaterako Sarrera eta Finantza Kontabilitatea irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations


3. maila: Ingurura egokitzeko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Egoera aldakor eta berrietan zailtasunei aurre egitea, bere eraginkortasun maila handiari eutsiz.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Errealitatearen interpretazio alternatiboak bilatzen ditu, elkarren artean eta bereekin kontrastatzeko, eta horren bidez bere portaera gidatzeko ondorioak atera nahi ditu.	Besteen eta kontrakoen ikuspegiaren gogoeta kritikoa egiten du, baita bere ikuspegia ere.
Inguruko gizarte errealitatea azaltzeko diskurtsoen koherentziez eta koherentziarik ezaz jabetzen da.	Ondorio koherenteak eta arrazoituak ateratzen ditu, eta horien bidez gizarte eta lan errealitatearen azalpen bat barneratzen du.
Bere ahaleginak planifikatzen eta bere denbora banatzen du, beste pertsona batzuenekin eraginkortasunez koordinatzeko.	Haren eraginkortasuna nabarmentzen da, presiopean dagoenean, eta denborari etekina ateratzen dio, lasaitasuna galdu gabe.
Hainbat lan konplexu aldi berean kudeatzeko gai da, horien aurrerapena kontrolatzeko bitartekoak ezarrita.	Hainbat lan konplexu kudeatzen ditu, horien aurrerapena kontrolatzeko bitarteko propioak ezarrita.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Lan Harremanen Teoria eta Egitura.

4. ZEREGINAK

Talde lanean aritzea, irakasleak gai bakoitzari buruz egindako galderari erantzuteko (irakasgaiaren eskuliburua, bideoak, kazetaritza artikulak eta abar oinarri hartuta).

5. EBALUAZIO SISTEMA

Lan Harremanen Teoria eta Egitura irakasgaiak gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen du. Haren ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.


Gaitasun honen ebaluazioan aintzat hartzen dira 2. puntuan deskribatutako adierazle guztiak, 4. puntuaren zereginak oinarri hartuta. Lehenengo hiru adierazleak balorazioaren % 30 dira, eta azkenekoa, % 10. Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala % 15 da.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiako arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

4. maila: Ingurura egokitzeko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Egoera aldakor eta berrietan zailtasunei aurre egitea, modu autonomoan, bere eraginkortasun maila handiari eutsiz.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK


ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Gizarte dinamika eta horrek gizarte eta lan eraketan sortzen dituen aldaketak aztertzen eta modu kritikoan baloratzen ditu.	Eskuratutako ezagutzak ez daude gizarte testuingurutik kanpo, eta, beraz, ezagutza teknikoen batuketa aritmetikoa baino zerbait gehiago dira.
Gizarte eta lan kontzeptuak, metodoak eta esparruak berritzea bilatzen du sistematikoki.	Prestakuntza ez da inoiz amaitzen, eta berrikuntza intelektuala ezagutza zorrotz eta zientifiko baten ezinbesteko baldintza da.
Etengabe kontrastatzen ditu eskuratutako ezagutzak, eta horiek gizarte ingurunera egokitzen ditu.	Etengabeko berrikuntza bizitza jarrera bat da; berritzea eta aldaketetara egokitzea ez dira soilik kanpoko gertaerak. Jakin-min zientifikoa etengabea da.
Diziplinartekotasunean sakontzen du, prestakuntza metodo gisa globalizatutako mundu batean.	Gizarte gertaeren konplexutasuna ezin da landu diziplinarteko metodoa aintzat hartzen ez duen espezializazio baten bidez. Aldatzen ari diren gizarte testuinguruaren konplexutasunaren esparruan espezializatu behar da.

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Berdintasunerako Planak eta Negoziazio Kolektiboa.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Generoaren gizarte eraikuntzaren bilakaera aztertzea: teoria feministaren oinarritzko kontzeptuak identifikatzea, soldatapeko eta soldatarik gabeko lanari aplikatuta.

Lan merkatuaren zuzeneko eta zeharkako bazterkeria deskribatzea. Bazterkeria agerian uztea, inkesten, txostenen, elkarrizketen, hitzarmenen analisisien eta abarren bidez.

Lan merkatuan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko proposamenak kontrastatzea –formalak eta informalak, arauzkoak eta konbentzionalak–.

Berdintasun planak aztertzea, analizatzea eta proposatzea, negoziazio kolektiboaren esparruan.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Berdintasunerako Planak eta Negociazio Kolektiboa irakasgaiak gaitasuna ebaluatzen du, ikasturtearen hasieran moodlen argitaratutako ebaluazio matrizeen arabera. Gizarte dinamikaren ikuspegi kritikoari, diziplinartekotasunari, kontzeptuen bilakaerari eta horiek egokitzeko proposamenei lotutako adierazleak ebaluatzen ditu. Irakasgaiaren amaierako notan, gaitasunari emandako pisu globala % 25 da.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiako arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gradu Amaierako Lana 4. maila: Gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA


Egoera formal, aldakor eta berrietan zailtasunei aurre egitea, bere eraginkortasun maila handiari eutsiz.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Errealitatearen interpretazio alternatiboak bilatzen ditu, elkarren artean eta bereekin kontrastatzeko, eta horren bidez bere portaera gidatzeko ondorioak atera nahi ditu.	Besteen eta kontrakoen ikuspegi gogoeta kritikoa egiten du, baita bere ikuspegiena ere.
Inguruko gizarte errealitatea azaltzeko diskurtsoen koherentziez eta koherentziarik ezaz jabetzen da.	Ondorio koherenteak eta arrazoituak ateratzen ditu, eta horien bidez gizarte eta lan errealitatearen azalpen bat barneratzen du.
Bere ahaleginak planifikatzen ditu eta bere denbora banatzen du lan konplexuetan, horien aurrerapena kontrolatzeko mekanismoak ezarrita.	Haren eraginkortasuna nabarmentzen da presiopean dagoenean, eta denborari etekina ateratzen dio, gai konplexuak kudeatzeko lasaitasuna galdu gabe. Lan horien aurrerapena kontrolatzeko mekanismoak ezartzen ditu.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

GRALa

4. ZEREGINAK

GRALa egiteko prozesuan, aztergaiaren hautaketa bat dator konpondu beharreko gizarte eta lan arazo bat jasotzen duen gai garrantzitsu batekin edo lan harremanei lotutako ikergai batekin.

GRALeko atalen edukiak irmotasuna eta barne koherentzia du argumentatze teorikoetan, hipotesien adierazpenean, datu eta informazioaren erabileran, eta ondorioak ematean, eta horien bidez gizarte ingurunearen behar bat aztertzen duen ikergai bati erantzun diezaiokegu.

GRALa defendatzean, modu sinesgarrian argudiatzen du GRALaren helburuen eta emaitzen arteko erlazioa, eta ikerketa gune egokia da, ikerketaren gabezia espezifikoetara dagokienez eta lan harremanen arloan ebatzi beharreko arazo zehatzen existentziari dagokionez.


5. EBALUAZIO SISTEMA

Elementu hauek identifikatu behar dira:

- a. Adierazle guztiak ebaluatzea.
- b. Gaitasunaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzea.
- c. Gaitasuna ebaluatzeke lana(k) (labur).
- d. GRALaren notan, gaitasunari emandako pisu globala.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

GRAL prozesuaren balorazio txantiloia, tutoreak beteta.

GRALaren amaierako memoriaren ebaluazioa, tutoreak eta epaimahaiak egina.

Epaimahaiaren aurrean egindako GRALaren defentsa eta azalpena baloratzea.